

URRETXUKO TXISTULARI TALDEAREN 50. URTEURRENA

•Zuek bai jakin!: Euxebi Ormazabal eta Itziar Sasieta •Izerdi patsetan: Amelio Mendijur

•Boteprontoan: Julen Arakama

Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko
martxoa
155. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

ATE IREKIAK

etorri
aurretik
izena eman!



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

APIRILAK 24 larunbata 11:00

ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN

MARTXOAK 25 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA

APIRILAK 22 osteguna 18:00

ARETO NAGUSIAN

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxuko txistulari taldearen 50. urteurrena
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Aste Santuan kanpora joateko ohiturarik ba al duzu?
Krisiak eraginik izango al du? Eta eguraldiak?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Javi Alonso
- 18 Zuek bai jakin!**
Euxebi Ormazabal eta Itziar Sasieta
- 23 Argazki zaharra**
- 25 Izerdi patsetan**
Amelio Mendijur: 60ko hamarkadako idoloa
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Julen Arakama



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Urretxuko txistulari taldearen 50. urteurrena

Urretxuko txistulari taldeak 50 urte beteko ditu aurten eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Lehenengoak martxoan izan dira. Txistulari beteranoekin hitz egin dugu taldearen sorrerari eta bilakaerari buruz.



Urretxuko txistulariak hilaren 13an.

Joxe Mari Lasak gogoratu ditu taldearen lehen pausoak. "1955. urtera arte Joxe Gabilondo ibili zen. Geroztik bere kasa ikasi zuen zenbait jende aritu zen: Leon Arrieta, Jesus Antia, Santi Gutierrez, Joxe Perez... Tarteka jotzen zuten. Bolada batzuetan igandero ibili ziren. Festetan ere jotzen zuten". Taldea, ordea, lehenengo Euskal Jaien ondoren eratu zen. "Txistulari eta dantzari talde finkoak izateko beharra ikusi zen eta Euskal Jaiaen bigarren ekitaldirako taldea eratuta zegoen". Bultzatzaileak Luistarrak eta Goierri elkarteak izan ziren, batik bat. Parrokiak eta Udalak ere euren aletxoak jarri zuten.

Ordurako Ramon Esnaola, Santi Gutierrez eta Joxe Perez eskolak ematen ari ziren. Hauekin ikasi zuten taldeko lehen txistulariek: Esnaolaren alabek eta ilobek, Zalduak, Areitiok, Abasolok, Portuk, Torresek, Lizarraldeak, Olaizolak, Etxeberriak... "Batzuek batekin eta besteek bestearekin ikasi genuen eta irailerako denok elkartu ginen. Entsegu pilotalekuan izan zen", azaldu du Jose Antonio Portuk.

Berehala herritik kanpo jotzen hasi ziren. "Lehen irteera Tolosara izan zen: Lizardiri eskaini zitzaion omenaldira. Tabernetan diru-bilketa egin zen txistularioi bidaia ordaintzeko. Bazkaria, berriz, etxetik eraman genuen. Inazio Zubizarretak anaia bat zuen Tolosan eta hark taberna batera eraman gintuen: zopa eta ogitartekoak ordaindu zizkigun", gogoratzen dute beteteranoenak.

Garai hartan zeresan handia eman zuten, lehen talde handia osatu baitzuten. Aitzindariak izan ziren. Izan ere, ordura arte txistulariek lagun talde txi-

kiak osatzen zituzten. "Zenbait herritan taldeak zeuden, baina 4-6 lagunekoak ziren. Gureak 20 lagun zituen. Kanpora joaten ziren bakoitzean sekulako arrakasta izaten zuten".

Hala, urretxuarrak ongi etorriak ziren toki guztietan. Portuk eta gainontzeko beteteranoek irteera asko egiten zituztela oriotzen dute. Iruñean jokatu zen munduko pilota txapelketan izan ziren, Gasteizen, Mirandan... Amelio Mendijur hil zen egunean ere txistulari batzuk Bergaran

Urretxuko txistulariak aitzindariak izan ziren, lagun askorekin osatutako lehen taldea eurena izan baitzen

ziren. "Torres, Liza eta hirurok joan ginen. Lasterketa hasi aurretik Mendijurrekin izan ginen eta bukatzen zuenean gurekin joango zela esan zigun", gogoratzen du Kerejetak.

Joxe Mari Lasak irteerarik sonatuenean artean Baionako festetara egindakoak daudela dio. "1968. urtean hasi ginen eta 7-8 urtetan joan ginen. Beste behin, ni soldadutzan nengoenean, Dax hirian izan ziren. Irteera horiek 1968-1976 tartean izan ziren. 1975 inguruan Gasteizko jailetara joaten hasi ginen. Zortzi bat lagun joaten ginen. Bai Baionan eta bai Gasteizen oso gustura egoten ginen: bost bat egunetan ez ginen etxera azaltzen... 18-20 urte genituen. Pentsa!".

Bai Gasteizetik eta bai Baionatik koadri-
lek deitzen zieten. "Iruñean bezala, peña bakoitzak bere musika kontratatzen zuen. Baionara joaten ziren txistulari bakarrak ginen, koadrila gehienek beste musikari batzuk deitzen baitzituzten".

Donostian, ordea, Udalak kontratatu zituela dio Portuk. "Estropadetara joan ginen, Kultur eta Turismo Ekintzetxeak deituta. Franco ere joan zela eta zerrenda pasatu zutela gogoratzen dut. Baita Casa Alcalde tabernan ogitarteko bat jateko denbora asko itxaron behar izan genuela ere".

Era guztietako ekitaldietan parte hartu dute urte hauetan guztietan. 70eko eta 80ko hamarkadetan, adibidez, oso ohikoa zen txistulariek jaietako haurren egunetan parte hartzea. "Egun Dantzari Txiki egunak egiten diren bezala, garai hartan txistulari gaztetxoak ekartzen ziren festetara. Herri askotan egiten ziren txistulari gazteen alardeak. Nire ustez garai hartan izan ziren txistulari gehien".

Horrenbeste ekitalditan parte hartu ondoren, ez da harritzeko makina bat pasadizo gogoratzea. "Gure lehen kalejira 1960an izan zen eta ez ziguten ezer ordaindu, baina 1961eko uztailean hiru eguneko txangoa egin genuen Udalak gonbidatuta. Santi Gutierrez Santander ingurukoa zenez, Lierganesera joan ginen. Festak zirenez, udaletxera joan eta txistua jotzeko baimena eskatu genuen. Gustura hartu zuten gure eskaintza! Gauean sekulako parranda egin genuen. Camilo Alonso Vega Barne ministroa bertara joaten zen oporretara eta, bezperako zalapartagatik haserretu ez zedin, bere etxe azpian diana jo

hilabete honetako gaia

genuen. Ondoren prozesioan eta meza-tan jo genuen. Jendeak ezin zuen sinestu bezperan parranda egin genuen berberak ginenik”, kontatu du Portuk.

Gazteagoek argi utzi nahi dute, ordea, parranda helduek bakarrik egiten zutela. “Haurrok hamarretan ohera joan beharra genuen. Besteen parranda leihotik jarraitzen genuen. San Inazio bezperan bakarrik utzi ziguten beranduago arte gelditzen: gauerdian San Inazioaren ereserkia jotzeko”.

Urte hauetan guztietan adin guztietako 236 lagunek jo dute taldean. Guztiek jarri dute euren aletxoa, baina batzuen ekar-

Txistulariek Ramon

Esnaola, Santi Gutierrez,

‘Jostenka’ eta Joxe Mari

Lasaren ekarpena

azpimarratu dute

pena oso berezia da. Joxe Mari Lasak Santi Gutierrez eta Ramon Esnaola derrigor aipatu beharrekoak direla dio. Gutierrezen alabak, Estibalizek, berehala hartu du hitza. “Nire ustez, azken 30 urteotan *Jostenkak* eta Joxe Mari Lasak egindako lana ere aipatu beharrekoa da”.

Guztiek giro ona sortzen jakin dute. “Agurtzane Aramendi taldearen historia-ri buruzko liburua idazten ari da eta gauza bat azpimarratu du: taldekide guztiek beti giro ona egon dela esan dutela”, amaitu du Joxe Mari Lasak.

Urretxu eta Zumarragako haurrak kantuan, hilaren 13ko ekitaldian. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Txistulariak, hilaren 13ko biltzarra hasi aurretik.



Urretxuko txistulariek makina bat ekitaldi antolatu dituzte euren taldearen urteurrena ospatzeko

Txistulariek merezi bezala ospatuko dute urteurrena. Lehen ekitaldiak martxoan bertan izan dira. Ekainean disko bat argitaratuko dute eta irailean taldearen historiari buruzko dokumentala eta liburua aurkeztuko dituzte. Horretaz gain, kontzertua, hitzaldia, erakusketa eta bazkaria ere izango dira.

Lehen ekitaldiak martxoan bertan izan dira. Hilaren 12an Donostiako txistulari

Txistulariek Esnaolaren

konposizioekin

grabatutako diskoa

kaleratu nahi dute

ekainerako

bandak kontzertua eskaini zuen Labeaga aretoan, Jose Inazio Ansorenak zuzenduta, eta bihamunen Euskal Herriko Txistularien Biltzarra ospatu zen Urretxun. Topaketa hau urtero herrialde batean egiten da.

Aurten 100 txistulari baino gehiagok parte hartu dute. Egun guztian zehar txistuaren doinua nagusi izan zen. Biltzarra Labeaga aretoan izan zen eta ondoren Euskal Herriko Txistulari Elkartearen zilarrezko domina eman zitzaizen hiru txistulariri: Sabin Bikandi galdakaotarrari, Txomin Agirregomezkorta pasaitarrari eta Javier Hernandez donostiarrari.



Jostenka eta Kerejeta, elkartearen banderarekin. Argazkia: Gotzon Aranburu.

Txistulariek Ederrena pilotalekuan bazkaldu zuten eta bazkalostea Benta Zaharreko mutiko alaiak taldeak girotu zuten. Bukatzeko, Areizaga-Kalebarren plazan erromeria izan zen.

Hurrengo ekitaldia ekainean izango da: Ramon Esnaolaren konposizioekin grabatutako diskoa aurkeztuko da. Esnaolak makina bat laguni irakatsi zien txistua jotzen eta bere obra gehienek herriko baserrien izenak dituzte.

Taldearen lehen kalejira 1960ko irailaren 12an izan zenez, irailean izango dira urteurren ospakizun garrantzitsuenak. 6an kultur astea hasiko da: egun horietan liburua eta DVDa aurkeztuko

dira eta argazki erakusketa, hitzaldia eta kontzertua izango dira. Agurtzane Aramendi ari da liburua idazten eta DVDaren arduradunak, berriz, Maider Sudupe eta Alex Areizaga dira.

Bukatzeko, irailaren 12an festa izango da. Urretxuko txistulariak mezetara joango dira, bazkaria egingo dute eta herriko kaleetan joko dute. Urte hauetan guztietan 236 lagunek jo dute taldean eta horietako askok ekitaldi horietan parte hartzea espero da. Euskal Jaiko karroza desfilean ere beteranoei tokia egingo zaie. Bezperako txistulari kontzertua ere berezia izango da urteurrena dela eta.

hilabete honetako gaia



1962ko Euskal Jaian ateratako argazkia.



1964ko Euskal Jaia.



1965eko Euskal Jaia.



1971n ateratako argazkia.



1962ko helduen taldea.



Bermejori omenaldia.



1960ko Euskal Jaia: lehen kalejira.



Lizarriturriren berrinaugurazioa.



Santi Gutierrezzi omenaldia.



1962ko Euskal Jaia.



1962ko txistulariak.



25. urteurrena.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiolad@mendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Otamotz

Herri Aldizkaria

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



OTAMOTZ TELEBISTAREN AZKENAK

- Ez da dirudiena. Fermin Gorosabel
- Martxoan Bertsoa: Aldiriko kanporaketa
- Antiguarekin. Antiora martxa
- Urretxuko txistulari taldearen 50. urteurrena
- Gernikako Arbola plaza estaltzeko proposamenak
- Martxoaren 8, Emakumearen Eguna
- Xera sari ematea
- Martxoan Bertsoa: 3. kanporaketa
- Atxaga Zumarragan, irakurle taldearekin
- Martxoko azoka berezia
- Haizeteak sortutako zenbait kalte
- Urretxu/Zumarraga-Legazpi zatiko lanak amaitzear
- Banatu dira Iparragirre sariak
- Zuhaitz Eguna Urretxun
- Jubilatuena inauteri ospakizunak
- Ez dira Tolosan bakarrik
- Marinelarenaren erakusketaren inaugurazioa
- Goñiren omenezko pilota-torneoa aurkeztu dute
- Urretxuko txistulari taldeak 50 urte
- Menpekotasunari buruzko legea
- Santa Barbara: behin betiko inaugurazioa
- Santa Ageda bezpera
- Santa Barbara aurkezpena udaletxeko langileei eta hedabideei
- Gaztelekuk deitutako manifestazioa
- Gazte Asanbladaren prentsaurrekoa
- Zeramika erakusketa
- Urretxuko Arau Subsidiarioak onartzeko bidean
- Jose Inazio Munilla Zumarragan
- Mali, Afrikako lurraldea erakusketa.
- Goierriko Biraren 1. etapa
- GKEen proiektuen erakusketa
- KKinzona Futbito Txapelketa

IRAKURRIENAK

1. Atxagak Zumarraga bisitatu zuen atzo
2. Bertso ziklogenesia Foxen, kandelen argipean
3. Ganbelutxo, espiritu ekintzailea krisiaren aurka
4. Antiora martxa deitu du Antiguarekin plataformak
5. Maialen Akizu eta Amaia Iturriotz Azkue sarietan garaile
6. Gernikako Arbolaren luzapena estaltzeko ideia aukeratu dute
7. Ismael Berasategi preso politikoa Frantziara itzuli dute
8. Xabier Zalduek heldu dio Ander Erasunek botatako apustu-erronkari
9. Zintzo Mintzok urteko batzarrera deitu ditu bazkideak
10. Jende ugari bildu du Antiora martxak


AZKEN IRAGARKI LABURRAK

- Garajea salgai Iparragirre plazan. Helbidea: Iparragirre 20. Mota: estalia. Metro karratuak: 30. Prezioa: 42.000 euro.
- Zumarragan pisua salgai. Helbidea: Elizkale 5 - 6. G. Etxebizitza mota: pisua. Solairua: 6. Metro karratuak: 90. <http://etxeasalgai.googlepages.com>.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Herria non, bizia han

Bi-Tartean elkarteko merkataria kexu dira Irmo fabrika ordezkaturako omen duen supermerkatuak hiriguneko saltokiei kalte egingo dielako. Euren ezinegona ulertzekoa da: jendeak herriko kaleetan paseatzea nahi dute, autoa hartu beharrik izan gabe, horrela errazagoa delako eskaparateei so egin eta denden ateei bultza egitea. Bezeroak urrundu ohi dituzten merkataritza-gune handiek zein indar duten badakigu.

Urbil, Carrefour, Garbera, IKEA, MediaMarkt, Boulevard... Guztiok erori gara euren hatzapurretan, "erosotasunak" bultzatuta batzuetan, prezio merkeagoen aitzakian gehienetan. Hirien kanpoaldean eraikiak orain deskribatuko ez dugun Urban Sprawl izeneko hirigintza-ereduaren erakusgarri dira gune horiek. Besteak beste, ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna eta hirigune historikoaren gainbehera dakarte. Normala da Bi-Tartean elkarteko kideek

Irimoko proiektua mesfidantzaz ikustea. "Merkataritza non, bizia han", diote.

Arazoa, ordea, sakonagoa da. Herriak bizia galtzen ari badira, ez da soilik supermerkatu handien eraginagatik. Handia izan baitaiteke tren baten abiadura, erraustegiaren tximinia, telebistaren pantaila, interpretazio zentro-jate-txe bat, etxebizitzaren prezioa, boluntario-militante jaitziera... Alegia, herri-guneko saltoki txikiak defendatu egin behar ditugula. Baina baita lekuan lekuko garraio (komunikazio) sare txikiak ere, fabrika txikiak, herri-ekimen txikiak, kontzertu txikiak, hedabide txikiak, hizkuntza txikiak, txiki handiak. Ez gara bi poeta flipatu, norbaiti hala iruditu arren. Ez dugu txikitasunaren aldeko alegatu ponpoxorik idatziko, baina handitasuna euro eta metrotan neurtzen jarraitzen dugun bitartean, txikiak izaten jarraituko dugu. Txiki eta eskasak.

Aste Santuan kanpora joateko ohiturarik ba al duzu? Krisiak eraginik izango al du? Eta eguraldiak?



Sonia Callejo



Amaginarrebaren jaioterrira joaten gara beti: Burgosko Canicosa herrira. Egia esan, han hemen baino hotz handiagoa egiten du oraindik. Dena den, oso gustura egoten gara bertan. Amaginarrebaren etxera joaten garenez, krisiak ez du gure planean eraginik. Aste Santua oso egokia da kanpora joateko eta deskonektatzeko.

Begoña Bastarrika



Ez daukat kanpora joateko ohiturarik. Sekula ez dugu izan. Aste Santuan txango bat egiten dugu eta kito: Donostiara, Errioxara... Ea eguraldi txarretik ihes egiteko gogorik ez dudan? Elurra gustukoa dut, ez naiz eguzki bila kanpora joaten den horietakoa.

Anjel Vilariño



Bai, kanpora joateko ohitura badugu. Galiziar jatorrikoak gara eta Aste Santuan eta udan hara joateko ohitura dugu. Krisiak ez du eraginik, arrega han bizi baita eta bere etxera joaten baino. Aukera izanez gero, urrutira joatea gustatuko litzaidake: paisaia berriak, jende berria...

Luis Mari Gorrotxategi



Mobil-home bat daukat Bañaresen, Errioxan. Aste Santuan eta udan beti hara joaten gara. Hori dela eta, krisiak ez du eraginik oporrak antolatzeke orduan. Urrutirago joatea inguru honetan eguraldi txarra egiten duelako? Familian asko gara eta ez dugu horretarako aukerarik.

Gaia: Gurasoek ez naute ulertzen

Doinua: Izarren hautsa

Jon Mendizabal



Zilborrestea moztu ezkeroztik
bizi naiz beraien menpe,
baina bizitza aldatu nahi dut
azkar eta derrepente.

Bi eurokoa da nere paga,
krisia izango da beharbada,
nazkatzen naute dexente...

Amai festero esaten diot
utzi ordubiak arte,
ta esaten dit "gehiago utzi
ezkero zuretzat kalte".

Alkoholik gabe bueltatu ohi naiz
eta "edaten jarduten al haiz?"

beti galdetzen didate...

Pikutara joan zaitezte!

Egia esan nere ustetan

zaila da duten papera,
egunez egun aldatzen baita
nere izateko era.

lbiltzen omen naiz harro eginda,
neure hormonak eutsi ezinda,
adina izango ote da?

Beti esaten didate neri:

"zu ulertzeko ze lana!"

ta ez da arina hitz horiekin
gainean daukadan zama...

Bera da ulertzen nauen bakarra,

ta sukaldean ez da baldarra,

aita, dut kristoren plana:

noa amonarengana!

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Eguraldiaz hitz egin genezake

Gero eta gehiago kostatzen zait hemen idaztea. Batzuetan *Egurra partitzen* ataleko bizilagunen antzera aritzea gustatuko litzaidake, baina ez zait ateratzen. Horregatik, oraingoan, ideia txikiak botako ditut, *iritziz iritzi*. Lehena: zein ondo dator-kigun aurten egiten ari den negua igogailu, denda eta bus geltokiko elkarrizketentzat. Beti esaten dugu ia mesprezuz eguraldia igogailuko gaia dela, baina pentsa igogailuan goazela bizilagunak hitzaldi sakona botako baligu. Entzuteko gai izango al ginatete? Bigarrena: hasieran esan dudan bezala, gero eta gehiago kostatzen zait plazaurrean aritzea, baina badago azkenaldian lotsa gutxi agertzen duen giza-talde bat, politikariena. Edozein gaiz mintzatzen dira, denetik jakingo

balute bezala. Eta nahi baino gehiagotan harrota-sunez agertzen dira herritarren artean, dauden tokian egotea zor dietela ahaztuz. Hirugarrena: martxoaren 8a duela gutxi pasatu da eta aurten inoiz baino gehiago irakurri eta entzun dut berdintasun eta emakumearen egoeraren inguruan. Pozten nau errealitate hau komunikabide eta agintaritzaren agendan egoteak, baina biziki kezkatzen nauena da gai honekin sortzen ari garen *literaturak*. Irakurri ditudan asko txapa hutsak dira eta praktikara jo behar dugu. Esaterako kontziliazio, erantzunkidetasun eta produkzio ereduen arteko harreman zailaren inguruko eztabaida eta enpresariak duten iritziaren falta somatzen dut, ez eurak eman ez dutelako, galdetu ez zaielako baizik.



El infinito en la palma de la mano

Gioconda Belli

Nikaraguarrak bere azken eleberri honetan askatasun eta sormen ariketa berria egin du Bibliak jasotzen duen Adan eta Ebaren testu sortzailea berridatziz. Poesia eta magia gainezka ditu testu ezin ederrago honek. Gizonezkoa eta emakumezkoa gorputz eta adimen biluzik aurkezten zaizkigu, izatasun osoan, elkar ezagutuz, bizirauteko ingurura moldatuz, bizitzaren botereaz txundituz, Jainkoaren zigorrarekiko ulertezintasuna eta

beldurra esperimentatuz, sexua, maitasuna eta seme-alaben esperientziak biziz. Jainkoak gizakia aske egin zuela jakin zuen Ebak, zein helbururekin ulertu nahi eta ezinean bizi izan zen. Bizitzak berak eraman zuen bikotea lehenengo eta gizateria jarraian ezagutzaren eta sormenaren bide-tik. Maitasun eta askatasun historia ederragorik nik ez dut inoiz irakurri.

Antxiñe Mendizabal

Tucson-Habana

Amparo Sanchez

Ahaztu Ampararoiaren doinuak. Dantza erorako edota parrandarako gonbita. Atzean utzi Amparo Sanchezen saltoak. *Tucson-Habana* beste gauza bat da. Amparo Sanchez pertsona bera da, baina zerbait aldatu da haren barrenean. Ilea ere luze utzi du, eta indarrez itzuli da. Klasikoen (Chavela Vargas, Billie Holiday, Nina Simone...) dotoretzia eta espiritua lagun hartuta mugako, basamortuko ahaireak laztandu ditu. Gozo

baino gehiago, goxo. Iradokitzaile. Tucsongo malenkoniak leundu ditu kantuek eta Habanaren graziak biribildu. Bi toki horietan grabatu du diska. Nabaria da Amparoren nortasuna. Ahots ederra, moldagarria, pasioz betetakoa. Diska gozagarria da. Kontrabaxua, bateria, pianoa, txeloa... Kaki Arkarazok joko du gitarra zuzenekoetan.

Igor Susaeta



Mal día para pescar

Alvaro Brechner

Mal día para pescar pelikula gustagarria da. Alvaro Brechner debutariak mimoz eta begirunez tratatzen ditue bere pertsonaiak, gain-behera doan galtzaile pare. Gidoia zuzendariak eta filmeko protagonista nagusiak idatzi zuten. Juan Carlos Onettiren testu bat hartu zuten oinarri aspaldian borroka libreko txapeldun izandako Jacob Van Oppenen bizitzako ataltxo bat irudikatzeke. Urte gozok atzean geratu dira eta *Príncipe Orsini*

goitizena duen managerrak Hegoamerikako herrixketan zehar halako *tour* bat antolatzen du. Herrixka horietan Jacobek indar erakustaldia egitea da asmoa, herriko biztanleak borrokara desafiatuz aldi berean. Orsiniren noblezia bere buruari jartzen dion goitizenean dago soilik. Jacob, berriz, zurrutero latza da. Pelikula hau ostiralean eskainiko da, 22.15ean, Zelai Ariztin.

ButaK 21 zineklub taldea



Erroma.

Javi Alonso.



zuek bai jakin!

Euxebi eta Itziar, emakume baserritarren ahotsa

Hilaren 7an Urretxu eta Zumarragako udalek Xera saria eman zieten emakume baserritarrei euren alorrean berdintasunaren alde egin duten lanagatik eta baserriaren arima direlako. Saria Euxebi Ormazabal zumarragarra eta Itziar Sasieta urretxuarrak jaso zuten guztien izenean. Biekin hitz egin dugu euren bizitzari eta emakume baserritarrei buruz.



Zer baserritakoak zarete? Zer diozue zuen gurasoei buruz?

Itziar Sasieta (I.S.): Mendizabal baserrikoa naiz. Aita bertakoa zen eta ama Beidakar baserrikoa. 15 seme-alaba hezi zituzten. Amona hemen ezagutu nuen, baita nire aitaren lehengusu bat... Garai batean 19 lagun egon ginen hemen bizitzen. Aitak baserrian lan egiten zuen. 56 urterekin hil zen eta gu, ahal bezain pronto, kalera joan behar izan genuen lanera etxera zer edo zer ekartzeko. 12 urterekin Odriozola sendiaren umeak zaintzera joan nintzen. Avenida tabernako nagusiak ziren. Jaiki eta umeak eskolara eramaten nituen. Ondoren etxeko lanak egiten nituen eta arropa eta tabernako trapeak eta mantalak garbitzen nituen. Bukatzen nuenean, tabernara joaten nintzen lanera. Aita hil eta gutxira joan nintzen bertara lanera, lutua eraman nuela gogoratzen dut: egungo arropa aukerarik ez zegoenez, zuri-beltz koadrodun bata batzuk janzten nituen. Bezero batek, Zumarragako arrandegikoak, bata zahar horiek kentzeko esaten zidan beti. Sufritu egiten genuen, etxean ez baitzen gauza asko erosteko aukerarik: ama alarguna zen eta, gainera, oraindik 50 urte bete gabe zituenez, ez zitzaion alarguntasunik tokatzen.

Eskola utzita al zenuen ordurako?

I.S.: Eskolara arratsaldeetan joateko baldintzarekin jaitsi nintzen kalera, baina ikastea ez zitzaidan asko gustatzen, ezin nintzen beti joan eta besteek aurrea hartzen zidaten... Arratsalde batzuetan umeak zaintzen gelditzen nintzen eta, egia esan, eskolan baino gusturago ibiltzen nintzen. Nire lagun mina,

Ipeñarrietako Begoña, artzain ibiltzen zen eta harengana joaten nintzen umeekin.

Urte askotan ibili al zinen horrela?

I.S.: Ez. Umea nintzen eta etxeko giroa falta nuen. Bederatzi hilabete pasatu ondoren, jai nuen egun batean etxera etorri nintzen eta amari itzuli egin nahi nuela esan nion.

Nola gogoratzen duzu ama?

I.S.: Langile ikaragarria zen. 80 urterekin baratzean lanean jarduten zuen. Osasun ikusgarria izan zuen. 60 urterekin ez zuela inongo ajerik esaten zuen. Bizimodu ari-nagoa hartuko zuen, baina hura tokatu zit-

Itziar Sasieta:

“Ama langile ikaragarria zen. 80 urterekin baratzean lanean jarduten zuen”

zaion... Gurekin etxetik kanpo afaltzea asko gustatzen zitzaiola gogoratzen dut.

Urretxuko Mendizabal baserrian bizi izan zara beti.

I.S.: Hona ezkondu ginen. Hemen ama, osaba ezkongabea, anaia ezkongabea eta oraindik ezkondu gabe zegoen ahizpa bizi ziren. Kaleko etxea oraindik bukatu gabe zegoen eta hura egiten zutenean hara joatekotan ginen, baina katerik gabe lotuta gelditu nintzen. Nire ahizpa ezkondu eta joan egin zen. Nola utziko nuen ama bi ezkongaberekin?

Eta zuk, Euxebi, zer diozue?

Euxebi Ormazabal (E.O.): Goiburu

baserrian jaio nintzen eta 27 urterekin Sagaspera ezkondu nintzen. Harrezkero, han bizi naiz. Nire aita ere gazte hil zen: 48 urterekin. Etxean, amarekin eta aitonarekin, hiru anaia-arreba gelditu ginen. Bi anaia fabrikan lanean hasi ziren eta ni etxean gelditu nintzen. Itziarrek esan duen bezala, norbait gelditu behar!

Euxebi, ez al duzu sekula etxetik kanpo lan egin?

E.O.: Noiz edo noiz Antiora joaten nintzen Paulari tabernan laguntzera, baina ezkondu nintzenetik ez dut etxetik kanpo lan egin.

Non egin zenituen ikasketak?

E.O.: Zumarragan, Nazionaletan.

I.S.: Nik ere herrian ikasi nuen.

Nola gogoratzen duzue kaleko haurrekin zenuten harremana?

I.S.: Niretzat oso gogorra zen.

E.O.: Apartatu egiten gintuzten.

I.S.: Lotsatiagoak ginen eta ezjakintzat hartzen gintuzten.

E.O.: Ez genuen beti eskolara joaterik, baserrian lana baitzegoen. Eskolara joan nahi genuen, baina baserrian gelditu beharra zegoen. Atzean gelditzen ginen. Ez tontoagoak ginelako, baizik eta eskolara egunero joaterik ez genuelako.

I.S.: Nire anaia batek beti esaten didan moduan, “gu tontoak izango gaitun, baina probatu gabe gaudelako. Bestela, zer izango ginen gu?”. Ez dugu aukerarik izan.

Gainera, gazteleraz kaleko haurrekin baino okerrago hitz egingo zenuten.

I.S.: Ez pentsa... Moldatzen ginen.

E.O.: Beraiek euskaraz baino hobeto moldatzen ginen gu erdaraz. Euskaraz azkar hitz egiten genuela eta ezin zigu-



Euxebi Ormazabal, Sagaspe baserriko ardiekin, 2004ko neguan.

tela jarraitu esaten ziguten. Guk, ordea, ondo ulertzen genien erdaraz egiten zutenean.

I.S.: Azkenean, zeintzuk ziren bizkorragoak? (barre).

Nolako zen garai hartako baserriko bizimodua? Egungoa erosoagoa izango da...

I.S.: Aurrerapenak ditugu, baina baserrian gogor lan egin behar da oraindik ere.

E.O.: Egunero lan egin behar da eta ez dira zortzi ordu, 16 baizik.

I.S.: Senarra dagoeneko erretiratuta dago eta garai batean baino lasaixeago gabiltza. Ganadurik ez dugu, gainera. Dena den, baserria oso lotua da. Baserria mantentzea nahi da, baina zer laguntza ematen zaigu hemen jarraitzeko? Bestalde, baserritarra pentsio oso

eskasarekin gelditzen da erretiratzen denean. Gizonezkoena ez da 600 euro-ra iristen. Alarguntzen bagara, zerekin

Euxebi Ormazabal:

“Eskolara joan nahi

genuen, baina

baserrian gelditu

beharra zegoen”

gelditzen gara? Tristeia de benetan. Normala iruditzen zait baserritarrak kalera joatea lanera. Baina baserri inguruak garbitzeari uzten badiogu sasiz

beteko da dena, e? Mendira joaterik ez litzateke egongo...

E.O.: Gainera, orain bertan haizeak egin dituen kalteak... Horiek guztiak konpondu egin behar dira. Zerekin? Pinuak ez ditu inork erosten...

I.S.: Udaletxeak kalean egin beharreko guztia egiten du, baina baserrietara ez dira etortzen laguntzera. Baserritarrok zergarik ez dugula ordaintzen dirudi...

Emakumeen lana bereziki gogorra al da baserrian?

I.S.: Nik, egia esan, denetik egin dut: goizean lehenengoa ganadu jira egitea zen, gero jorrara joaten ginen... Etxean ama edo amona egoten zen bazkaria prestatzen. Bazkaldu ondoren anaiak siesta egitera joaten ziren eta guri sukaldea jasotzea tokatzen zitzaigun.

Haiek jaikitzen zirenean, lanean segitzeko pronto geunden.

Siestarako eskubiderik ez zenuten, beraz...

I.S.: Orain hartzen dugu, e?

E.O.: Nik oraindik ez dut eskubide hori. Baserriko emakumeon bizitza gogorra da.

I.S.: Gizonari lagundu behar zaiola irakatsi ziguten. Igandeetan, goizeko 6.30eko mezatatik bueltan, emakumeok etxea garbitzen genuela gogoratzen dut.

Kaletarrek gutxiagotzat hartzen zintuztetela esan duzue. Hala, lagun gehienak baserritarrak izango zenituzten.

E.O.: Gehienak bai.

I.S.: Garai hartan gehienok baserritarrekin ezkontzen ginen. Igandeetan erromerietara joaten ginen (Elosura, Martirietara...). Mutilak bazkalostean joaten ziren erromeriarara eta hiru ahizpak etxean gelditzen ginen. Behia jetzi behar genuen etxetik irten aurretik. Gero, hankak txikitu beharrean joaten ginen erromeriarara... Oso ondo pasatzen genuen: dantza egiten genuen eta mutila gerturatzten genuenerako etxera. Mutilek motorra zuten eta motorean ekartzen gintuzten etxera. Hori zen gure festa. Kitto.

Kaletarrak ez al ziren erromerietara joaten?

E.O.: Herriko plazan dantza egiten zuten. Gu udan erromerietara joaten ginen eta neguan plazara. Baserritarrak plazaren alde batean egoten ginen.

I.S.: Nola ez ginen apartatuko ba? Beti mesprezatu egin gaituzte, baina ez dut uste beste batzuk baino ezjakinagoa naizenik. Joan behar dudan tokira joanda ere, moldatzen naiz.

E.O.: Gainera, egun emakume baserritar gehienok autoa dugu eta oso ondo etor-



Itziar Sasieta,
Mendizabal
baserriko
baratzean.

tzen da. Gure kasa kalera joateko aukera ematen digu.

Egun emakume baserritarren bizimodu erosoagoa da, beraz.

I.S.: Lehen ez genituen aukerak ditugu.

Euxebi Ormazabal:

“Egun emakume baserritar gehienok autoa dugu eta oso ondo etortzen da”

Aniak etxeko batek gidatzeko baimena izatea nahikoa zela esaten zidan. Eskerrak atera nuen! Gainera, nire zaletasunik handiena udazkenean perretxiko bila joatea da eta ez dut inoren beharrik joateko. Izan ere, nire senarra ez da batere zalea.

E.O.: Nik ezkondu eta berehala atera nuen gidabaimena. Sagaspera joan eta berehala esan zidaten atera beharko nuela eta ez dut inongo damurik. Kalea gertu dugu, baina ez da hori kontua. Garai batean astoarekin joaten ginen esnea partitzera eta goiz guztia kalean pasatzen genuen. Egun, ordea, presaka bizi gara.

I.S.: Aitak Morris bat zuela eta karrozeria egurrezkoa zuela gogoratzen dut. Harekin joaten ginen esnea partitzera. Gero eskolara joaten ginen. Ahizparen etxean bazkaltzen genuen eta arratsaldean oinez itzultzen ginen etxera. Aita hil zenean berriz astoarekin ibiltzen hasi ginen. Ipeñarrietako Begoña eta biok elkarrekin etortzen ginen. Haren astoa nirea baino azkarragoa zen, baina ez nuen lasterketa galdu nahi. Hori dela eta, laranja azalak botatzen nizkion bere astoari jaten gelditu zedin. Ondo pasatzen genuen!

E.O.: Egun baino lasaiago bizi ginen.

I.S.: Erlojuari ez zitzaion begiratzen. Ez genuen erlojurik... Artajorran geundenean, Iberdueroren linearen itzala toki zehatz batera heltzen zenean joaten ginen bazkaltzera. Egun baino gutxiagorekin konformatzen ginen. Egun ezerk ez gaitu asetzen. Sekula ez gaude konforme. E.O.: Gu Antioko kanpaiek hamabi aldiz jotzen zutenean joaten ginen bazkaltzera. I.S.: Izan ere, garai hartan 12.00etan bazkaltzen zen...

Urretxu eta Zumarragako baserritarren artean harreman estua izan al duzue?

I.S.: Nire ustez Urretxun bertako taldea zegoen eta Zumarragan Zumarragakoa. Ez ginen elkarrekin ibiltzen. Ipeñarrietako Begoña kalera joan ezinda egoten zen eta nire ahizparekin joaten nintzen.

E.O.: Nire lagunik handienak ...go Euxebe eta Kortako Mari Jose izan ziren. Orain, berriz, Urretxuko eta Zumarragako gazteak nahastuta ibiltzen dira.

Baserrian gogor lan egiteaz gain seme-alabak hezi dituzue.

E.O.: Nik hiru. Bi etxean daude oraindik eta bat ezkondata: Urretxuko Agerre baserrian. Hiru seme-alaba ditu: bi mutiko eta neskatxo bat.

Alabek zuk izan duzuna baino bizimodu erosoagoa al dute?

E.O.: Nirearen oso ezberdina dute. Ezkondatako alaba lanera joaten da eta amaginarrebak egiten dizkio etxeko lanak. Koinatuak eramaten dizkio umeak eskolara, aita ekartzen ditu... Bera etxera heltzen denerako, bazkaria eta umeak prest daude. Arratsaldean berak egin behar izaten du dena, baina ez da lehengo gauza bera. Beste alabak Zumarragako kultur etxean lan egiten du eta semeak Irizarren. Errelebotara

lan egiten du eta etxean ahal duena laguntzen du.

I.S.: Nire senarrak beti esan du oso ondo dakiela zer den zortzi ordu lan egin, etxera heldu eta berriro lanean hastea. Ezin dugu espero egungo gazteek guk bezala pentsatzea. Senarrari basoko lana asko gustatzen zaio, baina seme gazteenak aspaldi esan zion aitari oraingoz ez zuela bera bezala aritzeko asmorik. Bi semeek baserritik kanpo

Itziar Sasieta:

“Emakume baserritarrok

kalekoek baino

bizimodu gogorragoa

dugu oraindik”

lan egiten dute. Biek Zumarragan lan egiten dute eta herrian lan egitea loteria tokatzea bezalakoa da.

Nolakoa da zuen egungo egunerokoa?

I.S.: Jaiki eta etxea garbitu. Gero, baratzera. Egiteko asko daude, baina lehengoaren ezberdina da. Arratsaldeetan ahizpa etortzen da ilobarekin eta tertulian egoten gara. Zer egingo dugu mundu honetan bestela?

E.O.: Nire lehenengo lanak semeari otar-tekoa ipintzea, sua piztea eta lapikoa martxan jartzea izaten da. Behia jezten dut, senarrari laguntzen diot, ogia egiten laguntzen dut... Baratzean koinatuak lan egiten du. Iluntzean libratu egiten dut: semeak ardiak jezten ditu eta alabak ontziak jasotzen ditu. Ni ere alaba umeekin

noiz helduko zain izaten naiz. Egunero etortzen da etxera.

Zer zaletasun dituzue?

I.S.: Senarra erretiratuta dago eta udan oportetara joaten gara.

E.O.: Gu ez. Baserrian ganadua dugu eta hori ezin da bakarrik utzi. Hori bai, noizean behin egun-pasaren bat egiten dugu. Oletara, Kizkitzara, Elortxora... joaten gara.

I.S.: Niri igandeetan kanpora joatea gustatzen zait. Bazkari pasada kanpoan egitea.

E.O.: Nik koinatarekin-eta kortadutxo bat hartzera joateko ohitura dut. Haiekin tertuliatxo bat egin eta etxera.

Zer pentsatu zenuten Xera saria jaso behar zenutela esan zizuetenean?

I.S.: Ustekabe ikaragarria hartu nuen. Nire ustez gure aurrekoek merezi zuten saria, baina orain tokatu da eta jaso dugu. Gure amak hamabost seme-alaba hezi zituen. Beidakarrekoa zen. Bere jaiotetxea hemendik kilometro batera dago, baina igandea heltzen zela eta bere etxera joateko astirik ere ez zuela esaten zuen. Egunero babarrunak izaten ziren bazkaltzeko. Urdai pixka bat erosten zuen eta denon artean banatzen zuen: askotan bera batere gabe gelditzen zen. Monumentua merezi zuen. Dena den, guk oraindik kalekoek baino bizimodu gogorragoa dugula egia da. Askok baserrian gustura biziko liratekeela esaten dute, baina hemengo lan guztiak egiten jarriko nituzke... Dena den, gu halaxe ohitu gara eta gustura bizi gara. Beste askok gure etxea ikusten dute eta dagoeneko ez dela baserrira esaten dute... Eguneroko bizimoduan jarriko banitu ez lukete hori esango...

80ko hamarkada


Herriko pilotariak

Xabier Goñi, Jabi Erostarbe, Xabier Zubizarreta, Mikel Etxeberria,
Beñat Urretabizkaia eta Aitor Gabilondo.



Oharra: Otsaileko aleko argazki zaharrean azken 27 lagunen izenak jartzea ahaztu genuen. Hor dira.

121. Juanito Ormaetxea, 122. Jose Jaka, 123. Eugenio Garin, 124. Felix Ruiz, 125. Luis Irizar, 126. Jose Migel Mendizabal, 127. Luis Artzelus, 128. Patxi Badiola, 129. Enrique Mate, 130. Mateo Madina, 131. Juan Gorostegi, 132. Julian Alberdi, 133. Roberto Aizkibel, 134. Juanito Igartua, 135. Matias Ormaetxea, 136. Emilio Fernandez, 137. Rafael Aristegi, 138. Secun Apaolaza, 139. Xabin Larreategi, 140. Inazio Aranzadi, 141. Alejandro Dominguez, 142. Jesus Segurola, 143. Felipe Goenaga, 144. Pepe Velasco, 145., 146. ... eta 147. Maximo Okariz.



Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

Amelio Mendijur: 60ko hamarkadako idoloa

lazko etenaldiaren ondoren, Goierri elkarteak Amelio Mendijur zenaren omenezko proba antolatu du. Apirilaren 3an izango da, 16.15ean hasita, eta kadete mailako txirrindulariak lehiatuko dira. Urretxuar eta zumarragar askok ederki gogoratzen dute oraindik Mendijur zena, baina gazteenek ez dute jakingo seguru aski herritar bat munduko ziklo-kros txirrindulari onenetakoa izan zela. Bergarako lasterketan parte hartzen ari zela hil zen: Eitzaga jaisten auto baten kontra jo ondoren. Urretxuko txirrindularia ondo ezagutu zuen Agustin Aizpurrekin hitz egin dugu.



Amelio Mendijur lasterketa bat irabazi ondoren.

Aizpuruk oso gaztetan ezagutu zuen Mendijur. "Jubenila zen garaian ezagutu nuen. Soldadutzatik etorri nintzenean bizikleta denda ireki nuen Zumarragan. Lokala apaizen etxearen aurrean zegoen eta 22 metro koadro zituen. Bertan ezagutu nuen Mendijur. Beste mekaniko batzuk ere bazeuden Urretxu eta Zumarragan, Odriozola eta Arratibel, baina gaztea nintzen eta txirrindulari gazteak nirera etortzen ziren bizikletak konpontzera, hitz egitera, galletak jatera... Nik 21 urte nituen eta Mendijurrek 17", oroitzen du.

Gainera, Aizpuru konfiantzako mekanikoa zen. "Gurpilak zentratzen abila nintzen. Gurpila muntatu eta Eitzaga erdiraino jaisten nintzen proba egiteko. Garai hartan 95 bat kilo pisatzen nituela

kontuan izan behar da! Beste batzuek bezperan zentratutako gurpilekin ezin zen lasterketan parte hartu, baina nik zentratutakoekin karrera irabazteko moduan zeuden".

Bestalde, txirrindulari gazteekin bat egingen zuen. "Lasterketetara joaten nintzen, aldapetan edaria ematen nien... Deskargan taberna zegoen eta hotza egiten zuenean botilatxoak kafearekin eta koñakarekin betetzen genituela gogoratzen dut".

Txirrindulariak zein ondo zaintzen zituen ikusita, ez da harritzekoa Mendijur Aizpurrengana joan izana. "Oso jatorra zen. Gure bigarren bulegoa lburreta taberna zen. Han ere etxekoa bezala zen. Sukaldean sartzen zela eta mantala jartzen zuen, etxekoandreei

1963-64 denboraldia: Basualdo, Irastorza, Alejandro Egea, Agustín bere semea, Urmeneta eta Mendijur.



adarra jotzen zien... Oso erraza zen berarekin ondo eramatea”.

Iburretakoekin zuen harremana hain zen ona, non bertan fitxatu zuen Kas taldearekin. Aizpuru bertan izan zen, baina Alejandro Egea Mendijurren ordu-ra arteko prestatzailea ez. Pena hori du oraindik Aizpuruk. “Norbaitek intentzio txarrarekin egin nuela esan dezake, baina ez zen hala izan. Egea bertan ez egoteak pena eman zidan, baina dena ustekabean gertatu zelako izan zen. Luis Urdangarin Anton Barrutiaren laguna zen. Dalmacio Langarika eta Barrutia bera Zumarragara etorri ziren eta Urdangarini Mendijur non aurkitu zezaketan galdetu zioten. Nire dendara joateko esan zien”.

Kas garai hartako talde indartsuena zen, baina ez da harritzekoa urretxuarak beraiekin fitxatu izana. Izan ere, txi-

rindulari bikaina izan zen. “Bai errepidean eta baita ziklo-krosean ere oso ona zen. Erlojuaren aurkako Arrateko igoeran, adibidez, Jacques Anquetilek baino denbora hobea egin zuen. Anquetilek bost Tour irabazi zituen eta erlojuaren aurka bikaina zen! Mendijurrek sekulako indarra zuen. Aizpurutxoko Jesus Erratzuk ere indar handia zuen. Batzuetan bata hobeto ibiltzen zen eta besteetan bestea. Ziklo-krosean, lokatz asko zegoelako bizikleta sorbaldan hartu eta korrika egin beharra bazegoen, ez zegoen Mendijurri irabazterik”.

Hori ikusirik, Beasaingo munduko txapelketako antolatzaileek urretxuarrari komeni zitzaion zirkuitua prestatzea erabaki zuten. Mendijur proba irabazteko faborito nagusia zen, baina hilabete batzuk lehenago hil egin zen. “Nire

ustez, erraz irabaziko zuen. Dena alde zuten: Anton Barrutia Kas taldeko txirindularia berriro ziklo-krosean hasi zen Mendijurri irteeretan laguntzeko. Lasterketa gogorrek tokatuz gero, hiruspalau munduko txapelketa irabaziko zituzkeela uste dut. Bizikleta gainean bera baino hobekak bazeuden, baina korrika ez. Italian *El torito español* deitzen zioten”.

Errepidean ere urrutira helduko zela uste du Aizpuruk. “Kas taldean hobekuntza handia egin zuen. Lasterketa politak egin zituen. Hil zen egunean, adibidez, gorpila bi aldiz zulatu zitzaion eta Eitzagan istripua izan zuenean tropela harrapatzeko zorian zen. Errepideko lasterketetan ere dagoeneko izena zuen. Nire ustez, liderren laguntzaile izateko dohain apartak zituen”.

Ez zuen hori erakusteko astirik izan,

, Amelio Mendijur, Marinel, Santi Ruiz eta Agustin Aizpuru.



Txirrindulariek futbol txapelketan atera zuten futbol taldea.
Zutik: Tirapu, Ugarteburu, Osinalde, Parra, Aizpuru, Askasibar eta Bergara.
Eserita: Del Teso, Ormazabal, Mendijur eta Del Rio

ordea. Erakustaldi onenak ziklo-krosean eman zituen. 1964an Espainiako txapelketa irabazi zuen eta 1965ean Italian jokatu zen munduko txapelketan bosgarrena izan zen. Urte hartan ezin izan zuen Espainiako txapelketa irabazi. Aizpuru amorratu egiten da oraindik lasterketa hura aipatzen duenean. “Talamilloren atzetik heldu zen helmugara, bere erruz. Proba Beran izan zen eta ni andregaiarekin eta beste bikote batekin joan ginen. Mendijurri laguntza eskaini nion eta lasai egoteko esan zidan, Kas taldekoak arduratuko zirela bere bizikletez. Bidali zutenak, ordea, ez zekien nahikoa mekanikaz. Mendijurren bizikletak matxura zuela ikusi nuen eta Kas taldekoari geldiarazteko eta bizikleta aldatzeko esan nion, baina ez zen ausartu. Azkenean, matxuragatik bigarren gelditu zen. Nire ustez, Mendijur


fidatuta joan zen lasterketara. Hurrengo egunean barkamena eskatu zidan”, gogoratzen du.

Txirrindulari aparta izateaz gain, umila ere bazen, beraz. Hala, urretxuar eta zumaragar guztiak bere jarraitzaile sutsuak

*“Lasterketa gogorak
tokatuz gero, Mendijurrek
hiruzpalau munduko
txapelketa irabaziko
zituzkeela uste dut”*

ziren. “Lasterketa guztietara autobus bat edo bi joaten ziren. Garai batean sekulako txirrindularitza zaletasuna zegoen. Herrian

jubenil mailako lasterketa antola-tzen bazen, 8.30erako herri guztia kalean zegoen. Deskargan, Eitzagan... jende asko biltzen zen. Kontuan izan behar da garai hartan ez zegoela telebistik”. Hala, Mendijur herritarren idoloa zen. Bere heriotza sekulako kolpea izan zen. “Sekula ez dut halako hileta jendetsurik ikusi. Zergatik? Oso jatorra zen eta guztiei kasu egiten zien. Oso maitatua zen. Istripua izan zuen garaian nire bizikleta tailerra anaiak autoeskola izan zuen tokian nuen eta lasterketa egunean handik pasatzen ikusi nuen. Tropeletik 30 bat segundora pasatu zen, Eitzagara bidean. Seguru aski, Eitzaga oso ondo ezagutzen zuelako izan zuen istripua. Bihurgunean ziztu bizian hartu zuen eta behetik gora zetorren auto baten barruan sartu zen. Esan zidatenean, ezin nuen sinestu”, amaitu du.



Alex Areizaga

Informatika

'Ipad'

Urtarrilean Steve Jobs-ek, Apple-eko nagusi ahalguztidunak enpresaren harribitxi berria aurkeztu zuen: *Ipad*. Apirila amaieran jarriko dute hemen salgai. Tableta bat da, pantaila oro-taktila duena. Beste gauza askoren artean korroea irakurtzea, internetetik nabigatzea, musika entzutea, bideoak ikustea, liburuak irakurtzea (*Ebook* funtzioa), jolas kontsola gisa erabiltzea... ahalbidetuko digu. *Bluetooth*, brujula eta Wi-fi eta 3G konexioak ere baditu. 9,7 pulgadako pantaila, 700 gramoko pisua, 12 milimetroko zabalera eta 10 ordutako autonomia ditu. 355 eta 610 euro artean salduko da. Jendeak aurkitu dizkion hutsuneen artean web kamera bat edota telefono zerbitzua ez izatea daude. *Flash* formatuak ere ez ditu onartzen (youtubeko bideoak ezingo dira ikusi). Aldi bereko aplikazio bat gara daiteke soilik eta pantaila LED retroiluminatua du; ebookak irakurtzean bista neka dezakeena. USB porturik ere ez du eta horregatik programak instalatzeko Apple dendak gertu izan beharko ditugu. Oraingoan ere, nola ez, osabari eskertu behar diogu gomendioa.



Oihane Sudupe

Osasuna

Estresa

Estresa errealitatea ulertzeko dugun erarekin erlazionatua dago. Jatorria ezagutuz eta zenbait sinesmen aldatuz, estresa ekiditen ikas dezakegu. Hala ere, estresarekin modu egokiago batean bizitzeko eskuragarri ditugun zenbait baliabide erabiltzen ikasi behar dugu. Atal honetan elikadura jorratuko dugu. Hauek dira aholkuak:

- 1.-Bizigarriak (alkohola, kafeina...) ahal den neurrian murriztu.
- 2.-Arrain eta lekaleek eskaintzen dituzten proteinak haragiarenak baino osasungarriagoak dira eta ez dute kolesterol maila igotzen. Esneki eta arrautzak ere murriztu egin behar ditugu.
- 3.-Azukreak dietatik kendu. Xurgapen moteleko karbohidratoak (pasta, arroza, zereal integralak...) dira gomendagarrienak. Barazki eta fruituak ere ezin ditugu ahaztu.
- 4.-Gehigarri naturalak hartu. C (kiwiak, laranja...), B5 (lekaleak, arrautzak, haragia...) eta B6 (fruitu lehorrak) bitaminak, zinka (itsaskiak) eta magnesioa (espina-kak, olioan...) ezinbestekoak dira guruin adrenalaren funtzionamendurako (estresaren erantzuna erregulatzen du).

Ipuinik ez

Zenbat aldiz entzun beharko duzun politt horrek elurrarekin etorri zinela! Emakume langilearen egunean. Ospatu beharko ez denean ere, egun hori iritsiko bada, berezia izango da martxoaren zortzia zuretzat eta zure ingurukontzat. Elurretan etorri zinen eta maiz zuri artean zaude orain, epelean. Begiratzen dizut. Ezin dizut begirik kendu. Hainbeste minutu eskaini dizkizu nire imajinarioak... Irudikatzen zintugun bezalakoa zara. Hain zu! Begiratzen dizut; eta zuk ere begiratzen diozula iruditzen zaio gizajo honi. Amaren begi handiak ikusi nizkizun. Bai, ilun-ilunak eta handi-handiak. Zure-zureak. Eta berriz maite-mindu nintzen. Ikusiko baninduzu, haizerik ere pasatzen uzten ez duen beirazko leiho honen bestaldean... Zure loa zaintzen, ama errendituta ametsetan utzita.

Ene, negarrari eman behar ote diozu? Bai, politta, bai, egin lasai eta gogor. Hitzek baino gehiago lortzen dute malkoek. Haiei esker aterako zaituzte kaiola horretatik erizainek, nazkatzen badituzu. Nik, aldiz, entzun nahi zintuzket: zure negar-zotinak barru-barruraino sartzea. Ezin dudanez, begiratu egiten dizut, begiratzen dizut zerk aztoratzen zaituen jakin nahian. Asmatuko ote dut zure negarra ulertzen?

Entzun egin behar horretarako! Ez jakin; beharbada, bihar bertan, isildu ezin zaitzakegunean, ondo damutuko naiz hitz horiek esanaz. Bihar biharkoak. Atzoko zor luze bat kitatu nahian nabil orain. Amaren sabeleko ostikoez haratago sentitu nahi zaitut. Bada garaia! Nola zimurtzen duzun kopeta, nola tolesten sudurtzua eta estutzen ezpainak... Eta nik, oraindik, imajinatu egin behar zure ahotsa.

Amaren gorputza lehen, beiratea orain: beti zerbait gu bion artean. Ez ezazu pentsa, jeloskor egon naiz bederatzi hilabetez. Bai, orain aitortzen dizut; zuri bakarrik. Amatxori ez diot txintik ere aipatu. Zu handitzen zarenean ere ez dugu horretaz hitz egingo. Bederatzi hilabete diferituan. Ez da gutxi. Nahikoa arrazoi bekaizti izateko. Eta amazulua bazara, eta amak zuretzako izango baditu, gaurtik aurrera, laztan, begirada eta muxu guztiak... Hau,

akaso, ez nuke sentitu behar... Kostako zait gerora ere berriz aitortzea! Baztertua sentitzearen beldurra areagotu didazu, txiki. Begi handiagoak, sudur itzela, belarri ikaragarriak... Dena nahi nuke. "Zeinen begi handiak dituzun!", "Zeinen belarri handiak zureak!" Zu gehiago sentitzeko, Txanogorritxo! Baina otsoa izan gabe. Izua zilegi ote da? Basoak, otsoak, amaiera politik ez duten ipuinak...

Ezinegona duzu politt horrek? Besoak luzatu dituzu, sehaska konkistatu nahi duzu ala? Ez da nagiak ateratzeko, ordea. Hankak ostikoka, kopeta zimurra, sudurra tolestuta, begiak estu-estu itxita eta ahoa zabal-zabalik. Lehertu da zerbait zure barruan. Zeinen zu izan zaitezkeen esentzian! Zeinen erraza den zuretzat!

Nik ere egingo nuke. Motibo askorengatik: poza, erantzukizuna, maitasuna, beldurra. Zure txikitasunean zenbat sentiarazten didazun. Zeinen ni! Zuri begira-begira, zuretzat hain erraza dela ikusita, neuk ere egin nahi nuke. Baina niretzat zailagoa da. Ikusten banaute... Ez naute horrela inoiz irudikatu.

Momentuz ez dago inor pasilloan. Zorte pixka batekin ez da inor inguratuko. Beiratearen beste aldean zaudeten txikitxoak soilik izango zarete lekuko: Bazen behin urteko azken elurtearekin beirate baten atzean malkotan erditu zen gizon langile bat...Egidazu keinuren bat, maitea. Nik zure negarra bezala entzun nahi nauzula sinestu behar dut. Ez baitakit ipuin hau askotan kontatuko dizudan, Txanogorritxo.

Amaia Artolazabal Amilleta

Julen Arakama

Julen Arakama zumarragarrik 30 urte ditu. San Jose ikastetxean eta Iparragirre institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak eta ondoren Gizarte Hezkuntza ikasi zuen EHU. Gizarte hezitzaile lanetan aritu zen eta egun Gipuzkoako Urak enpresarentzat lan egiten du. Arakama ButaK 21 zineklubeko kidea da. "Selektibitatea irailean aprobatu nuenez, ez ninduten Gizarte Hezkuntzan hartu eta urte sabatikoa izan nuen. Orduan hasi nintzen ordura arte ikusi gabeko pelikula motak ikusten", azaldu du. Saskibaloia eta musika ere oso gustuko ditu.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dut inoiz bokazio argirik izan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Pelikulak ikustea, mendian paseatzea, hondartzara joatea, bidaiatzea... Sukaldean aritzea ere bai. Nire espezialitateak albondigak eta arrozesa dira.

Bizitzeko toki bat?

Zumarragan gustura bizi naiz. Islandia asko gustatu zitzaidan eta joango nintzateke, baina denboraldi baterako soilik.

Gustuko filma?

Doctor Zhivago.

Gustuko aktorea?

Ez naiz sekula aktore zalea izan. Bill Murray esango dut.

Zuzendari bat?

Sam Peckinpah, estilo nahiko zikina duelako.

Zer iruditu zaizu aurtengo Oscar sarien banaketa?

Saritutako pelikula asko ez ditut ikusi, baina *En tierra hostil* gustatu zait. Dena den, 2009ko onena *Up* iruditu zait.

Sekula ikusi duzun pelikularik txarrena?

Aquí llega Condemor, el pecador de la pradera. Zortzi lagun artean alokatu genuen eta nire bizitzan okerren gastatutako dirua izan da.


Illehorriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Lankide bati, apustu bat galdu ondoren, oparitu nion ipuin liburua.

Eta jasotakoa?



Gitarra elektriko forma duen sukaldeko ohola.

Data bat?

Inauteriak eta uda amaiera, Donostiako beldurrezko zikloa hasten delako.

Mutil eta neska izen bana?

Lorea eta Pello.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Kontzertuak eta kartelera bakarrik begiratzen ditudanez, bata edo bestea berdin zait.

Gustuko telebista saioa?

Qué vida más triste eta *Muchachada nui*.

Bereziki gorroto duzuna?

Jorge Fernandezek aurkeztzen zuen *Esta casa es una ruina* eta aberatsak eskaleen moduan bizitzen jartzen dituenak.

Liburu bat?

Alejandro Jodorowskyren *La danza de la realidad*.

Abesti bat?

Munduari su emateko Slayer taldearen *Angel of death* eta lagunekin parrandan entzuteko Judas Priest taldearen *Turbo Lover*.

Soinu bat?

Haizeak zuhaitzetako hostoetan jotzen duenean sortzen dena.

Usain bat?

Ermita itxietan egoten dena.

Janari bat?

Arrautza frijituak patatekin.

Ura ala...

Garagardoa.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA